

Aitortu gabeko salbuespen-egoeran bizi gara Euskal Herrian

José Luis ÁLVAREZ ENPARANTZA “Txillardegi”

Joan den Abenduaren 30ean, behin eta berriz azpimarratu denez, egun *historikoa* izan zen. Eta, zalantzarik gabe, Baskongadetako Legebiltzarrak *Ibarretxe Plana* gehiengoz onartzea aurrerapauso *garrantzitsua* izan zen (*historiko* maila iritsi ez bazuen ere).

Planaren ahuleziak eta gabeziak ezaguturik ere (lurraldetasunik eza, euskarari buruzko jarrera txepela, Auto-Determinazio eskubidea argi eta garbi derrigorrezko urrats gisa ez ezarri izana, oraindik ere “eskubide historiko”en erretolika antzura bihurtzea), Ibarretxe Planak etsaiaren nagusikeria astindu du. Eta frogarik nabarmenena Madrilén, Gorteko prentsa osoan eta “tertuliano” ezagunen saioetan, piztutako herra eta zapaldu-nahi lotsagaldua dira.

Hori dela bide, Ibarretxe Plana baino askoz ere adierazgarriagoa izan da Madrileko *portazoa*. Honetan garbi agertu baita Gasteizko Legebiltzarrak zernahi onartu arren, horrek ez duela ezertarako ere balio PARLAMENTUAK (letra larritan orain, jakina), Madrilekoak, besterik erabakitzen baldin badu.

Abertzaleok bagenekien hau. Eta espainiar agintariek ere bai. Baina, indefinizioaz eta bikoizkeriaz elikatzen diren errejionalistek ezikusia egiten diote errealitateari. Nahiz Bergarako Besarkada orain dela 166 urteko kontua izan.

Ibarretxe Planaren baliorik handiena, gure ustez, Madrileko “atekada”z emandako erantzun “demokratikoa” izan da. Egoera garbi utzi du. *Madrilek agintzen du, eta kitto.*

GOAZEN AURRERA

Eta “demokrazia” hitza aipatu dugunez, zer demokrazia-mota da hamarna milaka aberzaleri hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea ukatzen dion hori? Euskal Herriko hiritar guzतिक baitute hauteskundeetan bai bozemale eta bai hautagai izateko eskubidea.

Estatu espāñolean demokraziaz mintzatu ahal izateko, lehen-lehenengo urratsa hau da: *Ley de Partidos* delakoa deuseztatu, eta *Batasuna*, beste edozein talde politiko bezalaxe, normaltasun osoaz aurkeztu ahal izatea; eta bere hautetsiek (udal-zein lurralde-mailakoek) normaltasun osoaz beren lana burutu ahal izatea.

Hau gertatuko ez deno, Hego Euskal Herriko ordezkapen politikoa errotik faltsutua izango da; eta, hortik aurrera, hartuko diren erabakiak oro “*deficit*” horrek kutsaturik hartuko dira. Eta *Estado de Derecho* aipatzea fartsa galanta izango da.

Baina gaur bertan gauden egoera, azaldutako hori baino askoz larriagoa da .

Erdi ahaztuta badago ere, hemen *bi egunkari* itxi dira: *Euskaldunen Egunkaria* (Otsailaren 20an 2 urte); eta *egin* (aurki 7 urte). Besterik non ixten eta lapurtzen dira kazetak Europan ?

Zein demokraziatan antolatzen da 18-98 deritzon makro-auziaren moldekorik? Non, batera, 6 epaiketa eta 264 pertsona tribunaletara *multzotan* eramaten? Judikaturaren alorrean hori (xehetasunetan sartzen ari ez garelarik) .

Hemen torturatu egiten dela agertzen da Organizazio Internazionalen txostenetan. Behin eta berriz gertatzen da Euskal Herriko atxilotuek, komisaldegietatik irteadakoan, tratatu txarren berri zehatza ematea. *Aitortu gabeko salbuespen egoeran bizi gara Euskal Herrian.*

Euskal mundu osoa dago mehatxaturik. Euskal mundu *politikoa* (partiduen eta prentsaren mailan nabarmen); eta euskal *kulturaren* alorrean ez apalkiango. *Egunkaria*



JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA "TXILLARDEGI" (*Donostia, 1929*). Ingeniaria eta hizkuntzalaria, idazlea eta irakaslea. HBko mahai nazionalekoa eta senataria izan da; gaur egun Aralar-eko kidea da.

euskarazko eguneroko kazeta bakarra dela azpimarratu behar da. Baina enpresa pribatu batzuek badakite honen berri... Eta honez gero, lotsarik gabe egin behar dira salaketak

PP (eta Nafarroako *UPN* eta *CDN* ere bai) frankisten eta neo-fazisten sai-zuloa bihurtu dira. Eta hauengandik (Aznarren urteetan argiro ikusi zenez), Francorengandik bezala, egurra eta zanpaketa besterik ezin dugu espero izan.

*PSOE*ri buruz, eta Zapateroren irribarreari jaramonik egiten ez diogularik, zer esan-go? *Partiduen Legearen* ezeztapenean dauka labela eskuratzeko azterketa. Are okerrago Euskal Herriari dagokionez. Kulturalki eta psikologiaz Maragall katalana da. Pachi Lopez, aldiz, ez da euskalduna: ez kulturaz eta ez psikologiaz. Arrotza da erabat. Totorica Ermuko alkateak (PSOE), Madrilako zuzendaritzaren onespenearekin ari, Garzón bere herriko “hijo predilecto” izendatuz, PSOEkoengandik zer espero dezakegun nabarmen erakutsi du.

IU (eta areago Madrazoren *Ezker Batua*), “federalismo de libre adhesión” delakoaz, espainiar fronte ultra-nazionalista anti euskalduna hausten ausartzen den indar bakarra dira. Gure goresmena. Baina, zoritxarrez (eta politikan hau kontuan hartu behar da), oso oihartzun urria du Espainian.

Eta horrela, *PNV*ra iristen gara. Egia da Ibarretxe *PNV*koa dela. Baina Ibarretxek duintasunean defenditu zuen bere Plana Madrilen. Eta hau aitortu egin behar zaio egia-aren ohoretan. Ibarretxe ez da Ardanza. Baina itsu batek ere sumatzen du Josu Jon Imazen bidaia *diskreto* horien atzean, nola edo hala *PSOE*rekin bigarren *Ajuria-Enea* bat eraikitzeke erabaki sendoa dagoela. *E*Arekiko ika-miken ondorioz, eta *gubernagarritasunaren* aitzakian, *PNV-PSOE* ezkontza dator. Galtzak lurreraino jaitsi behar badira, eta Ibarretxe Plana zakarretara bota behar bada, hori ere egingo du Imazen teknokrata eskuindarren taldeak. “Geroak erranen”.

HORTAZ , ZER DUGU EUSKAL ERAIKUNTZAN AURRERA EGITEKO?

Aski garbi dago, gure ustez.

*PNV*rekiko loturen nostalgikoez barruko partida galtzen badute, *EA* izan daiteke (eta izan behar luke) lehendabiziko kate-begia.

Ezker Abertzale osoa dago hor oinarri: (Herri) Batasuna batetik, indar politiko nagusia; eta Aralar, oraino hozitzen hasia bakarri, baina azkartuz joatera deitua.

Eta hautetsien mugimendua: *Udalbiltza*, batez ere. Baita Iparraldeko AB eta antzekoak.

Eta euskal bi sindikatuak, *ELA* eta *LAB* pilare nagusi. Gehi euskal prentsa eta euskal kultur mundu osoa, noski.

Ez zait *ETA* ahaztu, ez. Eta makina bat aldiz idatzia dut, bere horretan daraman borrokak arazo eta eragozpen handiagoak ekartzen dizkiola mugimendu abertzaleari, Espainiari eta Frantziari baino. Baina orain gauden *salbuespen-egoera faktiko* honetan ETAk zer egin behar duen aztertzen hastea erokeria litzatekeela iruditzen zait. *Orain, salbuespen-egoera honen erantzuleek egin behar dituzte lehenengo urratsak.*

AZKEN OHAR BAT

Helburua ez da “bakea”. Francok ere “25 años de paz” hura asmatu zuenean bezala. Behin eta berriz lelo bera entzunda, desbideratu egiten gaituzte.

Helburua hau da: Euskal Herriari, herri gisa dagokion Auto-Determinazio eskubi-dearen aitortpena eta gauzapena.

Bakea, justiziaren ondorio ez bada, kanposantuetako sasi-bake isil etsia baizik ez delako.